
Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2015-06-11 (osteguna)

Ordua: arratsaldeko 18:30etan.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: E -15-04

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko ekainaren 9a

Idazkari-kontuhartzailea

AZTERGAI

ZERRENDA:

PUNTU BAKARRA: AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA ZUZEN IRIZTEN BADA:

- O-15-02 (2015-05-21)

.....//...

1-E-15-04: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2015EKO EKAINAREN 11KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko ekainaren 11n

Egun honetako arratsaldeko 18:30ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zuzenetik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK)
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiákez (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Ruth Idiákez Alberdi (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzailleak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//...

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//...

3-E-15-04: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

**PUNTU BAKARRA:
AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA
ZUZEN IRIZTEN BADA:**

O-15-02 (2015-05-21)

Ikusirik Udalkide guztiei bidali zitzaizela azkeneko Udal Osoko Bilkuraren akta-minuta, Udal Osoko Bilkurak, aho batez,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Aurkeztu den eran onartzea honako akta minuta:

O-15-02 (2015-05-21)

Beterik deialdiaren helburua, 18:45ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko ekainaren 11

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//...

4-E-15-04: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA